

IZENAK ETA ADITZAK

Oiloa ala arrautza?

Lagun batek zera esan zion beste bati, adarra jo nahian:

–Zer izan zen lehenago, oiloa ala arrautza?

–Oiloa, jakina! –erantzun zuen besteak.

–Ba, oker zaude. Oiloak existitu baino askoz ere lehenago baziren arrautzak... dinosauroenak baina! Kar, kar, kar...

Arrazoi zuen. Aurrerantzean badakizue zer erantzun galdera hori egiten dizuenari!

1. **IZENAK ETA ADITZAK.** Ba al dakizu hauetatik zein hitz diren izenak, eta zein, aditzak?

IZENAK	ADITZAK

lagun esan erantzun
arrautza galdera
egiten zaude adarra
olioa existitu
dinosaurioa

2. **IZEN MOTAK.** Jakingo al zenuke izen hauek honelako taula batean sailkatzen?

IZEN BEREZIAK	IZEN ARRUNTAK

Paris abeslaria Rihanna
Rozinante Joseba hiria
osaba Kantauri mendia
Gorbea zaldia itxasoa

3. **IZEN ARRUNTAK ETA BEREZIAK.** Lotu izen arruntak eta bereziak gezi baten bidez.

uhartea ☐
musika-talde ☐
aldizkaria ☐
antzokia ☐
museoa ☐
margolaria ☐
gaua ☐
kirolaria ☐

☐ Arriaga
☐ Agustín Ibarrola
☐ Guggenheim
☐ Gabon
☐ Aritz Aduriz
☐ Gaztelugatxe
☐ Elhuyar
☐ Zea Mays

Izena eta aditza

- **Izena.** Bi izen mota daude: **arruntak** (letra xehez idazten dira) eta **bereziak** (letra larri idazten dira).
 - Joxepa (izen berezia)
 - behia (izen arrunta)
- **Aditza** ekintza adierazten duen hitza edo hitz multzoa da.
 - Oiloak arrautza **errun du** (aditza).
- Aditzak hitz bakarrekoak izan daitezke (**aditz trinkoak**), edo hitz bat baino gehiagokoak (**aditz perifrastikoak**).
 - Oiloak **bi hanka ditu** (aditz trinkoa).
 - Oilarrak harra **jan du** (aditz perifrastikoa).

4. **ADITZAK.** Osatu esaldiak, aditz hauetatik egokiena jarriz.

zara zuen da dute daude zen

- ☐ Hegazti mota asko .
- ☐ Pinguinoek ezin hegan egin.
- ☐ Nefertiti antzinako pertsonaia .
- ☐ Jausgailuan ibili al inoiz?
- ☐ "Hegoak ebaki banizkio, nerea izango zen, ez alde egingo..."

5. **ADITZ TRINKOAK ORAINALDIAN.** Bete hutsuneak, hitz bakarreko aditzak erabiliz.

- ☐ Zuk ba al [] panderoa jotzen? (jakin).
- ☐ Joseba nire arrebaren irakaslea [] (izan).
- ☐ Oraintxe bertan nire etxera [](joan), etxerako lan asko [] eta (ukan).
- ☐ Kaixo, zuek nondik []? (etorri).
- ☐ Zure aitak motxilan eguzkirako betaurreakoak [] (eraman).
- ☐ Gu oraintxe bertan futbol partidu bat jolasteko zorian [] (egon).
- ☐ Ni orain bizikletan [] (ibili); gero motorrean ibiliko naiz.
- ☐ Zuek betaurrekoak [] (eduki) urrunetik ikusteko?
- ☐ Nire lagunek zure amaren etxetik pastela [] (ekarri).

6. **ADITZ LAGUNTZAILEAK.** Aukeratu aditz zuzena kasu bakoitzean.

- ☐ Pasaden kurtsoan ikusi genuen marrazoa hortz ikaragarriak...
☐ zizkion ☐ du ☐ zituen
- ☐ Ikusi al ... inoiz ostruka-arrautzarik?
☐ dituzu ☐ duzu ☐ zenuen
- ☐ Ba al ... galeper-arrautzatxoak pintxoetan erabiltzen direla?
☐ dakizkizu ☐ zenekizkien ☐ zenekien
- ☐ Ikusi al ... mokoa tukan horri? Hori da hori mokotzarra!
☐ diozu ☐ diezu ☐ duzue
- ☐ Aditzak birpasatzea asko gustatzen ...
☐ zaizu ☐ zaizkizu ☐ zait

7. **ADITZ BEREZIAK.** Berridatzi esaldiak, hitzak ordenatuz.

- ☐ duzu? / esan / nahi / Zer /izan

- ☐ gehiago / ote / eskatzerik? / dago / Ez

- ☐ digute / janarazi. / osoa / platerkada / Ezin

- ☐ inori / eragiten. / horiek / diote / Pailazo / ez / barre

- ☐ jantzita. / duzu / Detektibea / hori / gabardina / ematen

8. **ADITZ TRINKOAK LEHENALDIAN.** Bete hutsuneak, hitz bakarreko aditzak erabiliz. Kontuz ibili, iraganean idatzi beharko dituzu!!!

- ☐ Zuk iaz ba al panderoa jotzen? (jakin).

- ☐ 4. mailan, Joseba nire arrebaren irakaslea (izan).

- ☐ Pasaden astean nire etxera (joan), etxerako lan asko eta (ukan).

- ☐ Atzo ordu honetan zuek nondik ? (etorri).

- ☐ Herenegun zure aitak motxilan eguzkirako betaurreakoak (eraman).

- ☐ Gu gabonetan futbol txapelketa bat jolasteko irrikitan (egon).

- ☐ Ni atzo bizikletan (ibili); gero motorrean ibili nintzen.

- ☐ Zuek txikitan betaurrekoak (eduki) urrunetik ikusteko?

- ☐ Nire lagunak pasa den urtean zure amaren etxetik pastel bat (ekarri).

Aditzaren aldia

Aditzaren aldiak ekintza noiz gertatzen den zehazten du.

- **Orainaldia:** ekintza orain gertatzen ari dela adierazten du. ► *Orain, igeri egitera noa. / Gezurra esaten ari zara.*
- **Lehenaldia:** ekintza iraganean gertatu dela adierazten du. ► *Atzo, igeri egitera joan nintzen.*
- **Geroaldia:** ekintza etorkizun hurbil edo urrunean gertatuko dela adierazten du. ► *Bihar, igeri egitera joango naiz.*

9. Irakurri testu hau eta aukeratu zer aditz laguntzaile den egokia hutsune bakoitzean.

Gaur egungo gizartean, guztiz zabaldua telebistaren eta ordenagailuaren aurrean egoteko ohitura. Baina onuragarria ote da?

Telebista ikustea eta ordenagailuarekin aritzea ez, berez, jarduera kaltegarriak. Izan ere, gauza asko ikas bai batarekin, bai bestearekin, ondo pasatzeaz gain.

Dena den, gauza bat..... zentzuz erabiltzea; eta beste bat, orduak ematea eta besterik ez egitea.

Pantaila aurrean ordu gehiegi ematen beste gauza askotarako denbora galtzen: kalean ibiltzea alde batera uzten; giza harremanak gutxitzen; kirol gutxiago egiten

Bestalde, begiak nekatu egiten, eta bizkarrerako ere ez komeni, medikuek diotenez.

Ondorioz esan daiteke telebistaren eta ordenagailuaren aurrean ematenordu kopurua neurtu eta mugatu egin behar dela.

10. **GEROALDIA.** Aukeratu aditz zuzenak, esaldiak osatzeko.

- Zer gaur bazkaltzeko?
- Bihar mendira ikastolako neska-mutilak.
- Itxaron pixka batean, oraintxe
- Datorren astean oporrak.